



Altza - Herrera

Aldaketak zahar etxeetako kudeaketan

Aldaketa prozesuan murgilduta daude Altzako eta Larratxoko hiru zahar etxeak. Izan ere, zahar etxe bakoitzean elkarte bana sortuko dute, eta elkarteak kudeatuko ditu gune hauek. Une honetan, elkarteon estatutuak idazten ari dira.

Orain arte, Donostiako Udalak kudeatu ditu Altzako eta Larratxoko hiru zahar etxeak: Aitonak, San Marzial eta Gurea. Udal kudeaketak arazo batzuk ekarri zituen. Idoia de Blas Ongizate saileko teknikariak esan digu-

nez, "funtzionamendua oso mantsoa zen, eta arazoak sortzen zirenean, konpontzeak luze jotzen zuen. Horregatik, funtzionamendua aldatzea erabaki dugu. Gune bakoitzean elkarte osatu nahi dugu. Autonomia eman nahi diegu

elkarteei, zahar etxeak nahi bezala antola ditzaten. Formula bera erabili genuen zenbait auzotako zahar etxeetan, Parte Zaharreko Kai Alden, eta Añorgako Gure Kabian, esaterako. Kudeaketa arinagoa eta egokiagoa dela ikusi dugu".

Estatutuak gorpuzten

Une honetan, zahar etxeetako kideak elkarteon estatutuak idazten ari dira, eta prozesua urtarrilean amaitzea espero dute. Estatutuak idazteaz gain, zuzendaritza batzordeak izendatu beharko dituzte. On-

Aldaketa hauek guneetako jardueretan eragina izango ote duten ikusteke dago. "Aldaketak izan litezke, baina goiz da horretaz hitz egiteko. Izan ere, aurrerantzean elkarteak berak izango dira antolatzailerak", esan digu Idoiak.

Idoia de Blas:
"Zahar etxeen funtzionamendua oso mantsoa zen"

doren, batzar orokorrek estatutuak eta zuzendaritza batzordeak berriki beharko dituzte. "Hortik aurrera, elkarteek izango dute guneak kudeatzeko ardura. Jakina, udal dirulaguntzak jasoko dituzte", esan digu Idoiak.



Mozkor Frenetikideok pala txapelketa

Bartolin II. Pindino, Satorra Mozola... XVIII. Mozkor Frenetikideok Pala Txapelketa parte hartuko duten auzolar batzuen gortzenak dira. Txapelketa urriaren 16an hasiko da, eta ohi bezala, partidak larunbat goizean jokatuko dira Herreako frontoan.

LEHIAKETA

Zortzi sarrera ditugu "Tío Vania" antzezlana ikusteko.

Emanaldia hilaren 15ean, ostirala, izango da Lugaritz kultur etxean, 20:30ean. Sarrerak eskuratzeko 943 467181 telefono zenbakira deitu behar da asteazkenean, hilak 13, 12:00etan.

